

Estás en: [diariovasco.com](#) > [Noticias Más Actualidad](#) > [Noticias Cultura](#) > «**Munduan jende gaiztoa dago, baita akademian eta unibertsitatean ere**»

PELLO SALABURU, EUSKALTZAIN ETA EHUKO EUSKARA INSTITUTUKO ZUZENDARIA

«Munduan jende gaiztoa dago, baita akademian eta unibertsitatean ere»

'Errateko nituenak. Cuzcoko kronika' liburua plazaratu du, kronika, autobiografia, gogoeta eta narrazioa uztartuta

13.04.14 - 00:31 - FELIX IBARGUTXI | DONOSTIA.

Comenta esta noticia |  **Twitter** { 34 }  { 0 }  **Compartir**  **Recommend** { 1 }  0 votos   

Pello Salaburuk (Arizkun, Baztan, 1951) oso liburu pertsonala idatzi du, bere pertsonalena: 'Errateko nituenak. Cuzcoko kronika' (Erein argitaletxea). Oso liburu hibrido da, bidaia kronikatik, autobiografiatik, gogoetatik eta narraziotik duena. Eta badu beste bereizgarri nabarmen bat: hizkera. Baztango euskalkiko hainbat gauza ekarri du liburuko euskara batura. «Bidaia surrealista bat» dago liburuaren oinarrian, hizkuntza planifikazioa zela eta Perura egindako bidaia. 2012an izan zen, eta bertan hartutako oharrak eta izandako gogoetak izan ziren liburuaren ermanuin eta legami.

«Seminariotik atera nahi nuen, baina hori estigmatizatua zegoen, eta gainera ez nuen nora joan»

«Inpresioa daukat askotan konturatu gabe sartzen zarela ETA bezalako erakunde batean»



-Cuzcon pertsona interesgarriak topatu zenituen?

-Pertsonak baino gehiago, hemengo gauzei buruz hausnartzeko bidea eman zidaten egoerak topatu nituen. Kitxuaren egoera da hemen orain orain 40 urte zen egoera bezalakoa. Hizkuntzaren arazoa ez da oraindik unibertsitatera heldu, baina jende kezkatua bada, bai.

-Arizkongo txikitako kontu asko aipatzen duzu. Han, haurtzaroan, errealismo magikorik ezagutu al zenuen? Kontatzen duzu pasadizo bat, asto baten puzkerrarekin lotutako heriotza. Horrek mundu oso zahar batera garamatza.

-Astoaren kontu hori ez dut beste inon irakurri, baina ziur asko oso klasikoa da, duen tonuagatik. Ni baserri batean bizi nintzen, eskolara joateko edo itzultzeko askotan gauez ibiltzen nintzen, eta lan asko kanpoan egiten zirenez jende asko ibiltzen zen gauez. Gauza naturala zen gauez ibiltzea linternarik gabe. Eta beno, bazuen magia piska bat.

-Bitoriano Gandiagak aipatzen zuen ze zirrargarria zen mendian gauez ibiltzea. Bera oso aparteko baserri batean bizi zen.

-Denak egiten zuen zarata, kanpoak eta barruak. Etxeak ere egiten zuen zarata. Katua mugitzen zen sabaian eta azpitik dena aditzen zenuen. Azpian behiak zeuden eta haiek orro egiten zuten gauez... Ez dakit errealismo magikoa den hitza, baina egia da hura beste errealitate bat zela.

-Seminarioa zama izan zen?

-Seminarioko oroitzapenak lanbrotuak ditut. Liburuaren hasierako titulua horrelakoxea zen: 'Lanbro arteko kronika'. Nik ez nuen han ongi pasatu. Sartu, eta segituan atera nahi nuen, baina hori estigmatizatu zegoen, eta gainera ez nuen nora joan. Formazioa eman zidaten, baina nik gaur daukadan inpresioa da ez nuela batxilergo ona egin. Dena dela, zaila da ezer onik egitea toki batean gustura ez bazaude.

-Liburuaren aurkezpenean bideo txiki bat eskaini zenigun, eta bertako musika zuk jotakoa zen, pianoaz. Zuretzat zer da pianoa?

-Frustrazio bat eta plazer bat. Beti izan dut ikasteko gogoia, eta soilik bizi nahiko aurrera doanean hasi naiz ikasten. Orain bost bat urte hasi nintzen. Egunero jotzen dut, inoiz ez dut goi-mailarik izango, baina hor ari naiz...

-Errazuritarrek asko dira munduan eta, teorian, denek zeure etxean dute jatorria.

-Bai, XVIII. mende hasieran atera ziren Txile aldera, eta han asko daude. Familia ikaragarri hedatu zen, baina nik ezagutzen ditudan guztiak Txilekoak dira, eta dira aski aberatsak eta jende arrunta.

-Liburuan bada pasarte bat zer esana emango duena: Euskaltzaindiari buruzkoa, alegia. Kontu delikatua da. Zer moduz moldatu zara hori idaztean?

-Salbu Haritzelharri buruz esaten dudana -hori, hil eta gero izan zen- orrialdeak krisia publiko egin aurretik idatziak dira. Liburua puzzle bat da, eta atal horrek ez du ez garran-tzi gehiago eta ez gutxiago. Hor esaten dut nola ikusten ditudan akademiak, eta horietako bat da Euskaltzaindia. Arazoa hedatua dago, ez da bakarrik Euskaltzaindikoa.

-Izenik ez duzu ematen, baina azken batean esaten duzu Euskaltzaindian jende gaiztoa ere badagoela.

-Munduan dago jende gaiztoa. Akademietan eta unibertsitatean ere bai.

-Zein diren zure euskaltzain lagunak esaten duzu: Ibon Sarasola, Miren Azkarate, Patxi Goenaga, Beñat Oiartzabal... Denak ere unibertsitateko jendea. Iruditzen zaizu liburu honek eragina izango duela



Pello Salaburu, Donostian lehengo asteazkenean. :: LOBO ALTUNA

NOTICIAS RELACIONADAS

▶ Daviden izarra daramaten euskaltzainak

Publicidad

AUTOCASION.com
Coches Nuevos

Ahora en portada... **diariovasco.com**



SALUD

Euskaltzaindian?

-Ez, ez dut uste. Liburuan diodana aspaldi ezaguten dute barnekoek.

-Zer moduzko esperientzia izan zen joan zinenean kartzelara ETako kide izandako batzuekin hitz egitera?

-Oso hunkigarria. Idatzia nintzen ETari buruz, asko, eta bat-batean han nituen kide batzuk, aurrean. Biziki damututa zeuden. Inpresioa daukat askotan konturatu gabe sar-tzen zarela horrelako erakunde batean.

-Nola moldatu zara kontu intimoak azaltzeko garaian?

-Hori berria izan da, guztiz. Batzuetan pentsatzen nuen: hau publiko egin behar dut? Buelta asko eman dizkiot. Iruditzen zitzaidan liburuak behar zuela hortik ere, liburu pertsonala izatea nahi nuelako. Behin erabakita nahiko erraz joan zait eskua. Katartikoa izan da neurri batean.

-Baztango kutsua eman diozu liburuko euskara batuari. Zuk, eguneroko martxan, hizkera hori gutxitan izango duzu erabiltzeko aukera.

-Baztanen banengo bezala idatzi dut. Hara joaten naizelarik eta anaiarekin mintzatzen naizelarik, hango hizkeran egiten dut. Baina hizkera hori jarri nahi duzunean prosan zalan-tzak sortzen dira. Liburuaren izenbururik hasita: guk ez dugu 'errateko' esaten, baizik eta 'erteko'.

-Zure lana unibertsitatean zein da?

-Euskara Institutuko zuzendaria nago. Euskararen inguruko material pila bat ateratzen dugu. Baditugu korpusak -potenteenak guk ditugu, diferentziarekin-, baditugun gramatikak, baditugu hiztegiak... Ibon Sarasola hor ari zaigu egungo euskararen hiztegia osatzen, bukatzen denean hori izango da hiztegirik potenteena. Bi-hiru urte beharko dira burutzeko. Paperean aterako bagenu, 12.000 orrialde izango lituzke letra txikian. Eta dena XXI. mendeko testuetan oinarrituta.

-Salaburu abizenak zer nahi du esan?

-Horrelako gauzei ez diet kaso handirik egiten. Pentsatzen dut 'sala' hitzetik datorrela, hitz hori nahiko euskal hitza baita. Beste batzuek diote 'soro' hitzetik datorrela, baina nik ez dut uste.

PUBLICIDAD

[Contrata el Depósito NARANJA de ING DIRECT a 3 meses al 2%TAE](#)
[Cámbiate a la Cuenta NÓMINA de ING DIRECT.](#)
[Openbank: Banco del Grupo Santander. Sin gastos ni Comisiones](#)

TAGS RELACIONADOS

munduan, jende, gaiztoa, dago, baita, akademian, unibertsitatean

Publicidad

Las terapias contra la fibrosis quística permiten ganar en calidad de vida

CAÍDA DEL EMPLEO

A la Cornisa Cantábrica le cuesta despegar


ECONOMÍA

El Gobierno Vasco libera una partida de 16 millones para crear 2.500 empleos

Opillas en vacaciones

Las obras para el albergue en la estación de tren ya han finalizado

► Visitar portada



diariovasco.tv


VIDEOS DE CULTURA

más videos [+]



CULTURA

«Casi todos los teatros de ópera de España son clientes nuestros»





No hay que ser inmortal

Invierta en el Hotel del 1er.rascacielos de Bogotá

www.bdbacata.com



Multiplique su Dinero

Por menos de \$1.200.000 Reciba Grandes Beneficios


www.bdcartagena.com



Want to advertise here?

Your ads can be published in this space. Now for sale in the USA. Click to get more info

www.pan-ads.com



Advertisers in the USA

Now you can use this space to advertise your product. Click here to get more information

www.pan-publicidad.com



Chromecast , Comillas , Oferplan , Restaurantes Gipuzkoa , Phablet , Ordizia ,, Interviú , Aibar , Television , promociones , noticias País Vasco , Smartwatch , Congreso Gastronomía

LO MÁS VISTO

- Una mujer de otro planeta...
- La exmujer de Rushdie sale con Richard ...
- Esconde a su hija de 8 años en una male...
- Contra el 'apagón' de nueve canales...
- Intenta robar en un bar con sus dueños ...
- Las terapias contra la fibrosis quística...
- Opillas en vacaciones...
- Tío Pepe vuelve a dar luz al Madrid más...
- Los obispos del lujo...
- Un turroneiro elaboraba dulces con marih...
- Las obras para el albergue en la estaci...
- Los deportes de Cope superan a la Ser I...

LO MÁS COMENTADO

LO ÚLTIMO DE DIARIOVASCO.COM


NOTICIAS AL MINUTO (AGENCIAS)



34



0



1



0 votos



LUJO EN PALMA DE MALLORCA
GRAN MELIA VICTORIA
 En el corazón del Paseo Marítimo y su Club de Yates

bono **20€**
 regalo por noche



vocento

Powered by SARENET

diariovasco.com

© Copyright DIARIOVASCO.COM Sociedad Vascongada de Publicaciones, S.A.
 Registro Mercantil de Gipuzkoa, Libro de Sociedades 49, Folio 118, Hoja nº 2.900,
 Inscripción 1ª C.I.F.: A-20004073
 Domicilio social en Camino de Portuetxe, 2 San Sebastián 20018
 Correo electrónico de contacto contactanos@diariovasco.com
 Copyright © Digital Vasca S.L. , San Sebastián. , 2008. Incluye contenidos de la empresa
 citada, del medio El Diario Vasco (Sociedad Vascongada de Publicaciones, S.A.) , y, en su
 caso, de otras empresas del grupo de la empresa o de terceros.

EN CUALQUIER CASO TODOS LOS DERECHOS RESERVADOS:

Queda prohibida la reproducción, distribución, puesta a disposición, comunicación pública y utilización, total o parcial, de los contenidos de esta web, en cualquier forma o modalidad,

ENLACES VOCENTO

- | | |
|----------------------|--------------------|
| ABC.es | Hoy Digital |
| El Correo | La Rioja.com |
| Elnortedecastilla.es | DiarioVasco.com |
| Elcomercio.es | Ideal digital |
| SUR.es | Las Provincias |
| Qué.es | El Diario Montañés |
| La Voz Digital | Laverdad.es |
| ABC Punto Radio | Finanzas |
| hoyCinema | hoyMotor |
| Infoempleo | Guía TV |
| Autocasion | 11870.com |
| Mujerhoy | Pisos.com |

sin previa, expresa y escrita autorización, incluyendo, en particular, su mera reproducción y/o puesta a disposición como resúmenes, reseñas o revistas de prensa con fines comerciales o directa o indirectamente lucrativos, a la que se manifiesta oposición expresa.

[Contactar](#) | [Mapa Web](#) | [Aviso legal](#) | [Política de privacidad](#) | [Publicidad](#) | [Master El Correo](#)
[Política de Cookies](#)

Vadejuegos
Grada360

Avanzaentucarrera.com
m.diariovasco.com